

**Basauriko 'Euskal Herriko Dantza Agerketa'ren
53. edizioan lehen aldiz MURCHANTEko (Nafarroa)
makil-dantza edo 'paloteao'a ikusteko aukera
izango dugu, Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta
Iparraldeko beste lau dantza-talderekin batera.**

- Euskal Herriko Dantza Agerketak 53 edizio betetzen dituen honetan BOST dantza-talde AUTOKTONO eta beste zenbait ekintza osagarri bilduko ditu, irailaren 19an (ostirala), 20an (larunbata) eta 21ean (igandea), BASAURIn.




- Gonbidatutako bost taldeak LARUNBATEAN izango dira, irailak 20, iluntzeko 19:00etan, Basauriko Bizkotxalde parkean. Euria egingo balu, ekitaldia Basauriko Social Antzokian izango litzateke.
- Aurten aipatzekoa da Nafarroako Erriberako MURCHANTEko herritarrek 'paloteao'a ekarriko dutela Basaurira lehen aldiz, urteak baitaramatzate herriko plazan egiten abuztuaren 15ean, San Roke patroia bezperan.
- Horrez gain, Iparraldeko talde batek ere hartuko du parte (Zuberoako 'Atharratzeko Dantzariak'), baita Mendexako dantza-taldea (Mendexa-Bizkaia) mahai luze baten gainean egiten duten dantza bereziarekin, "Udaberri" taldea (Tolosa, Gipuzkoa) eta "Indarra" taldea (Gasteiz, Araba).
- "Euskal Herriko Dantza Agerketa" LIII. edizioaren osagarri gisa, ostiralean, hilak 19, 18:30ean haurrentzako tailerrak hasiko dira Solobarria plazan. 19:00etan, berriz, ERROMERIA herrikoia izango da, txorizoa sagardoarekin. Ondoren, 20:30etatik aurrera, 'BASAURI KANTARI' hasiko da handik bertatik. Bestalde, igandean, hilak 21, 19:00etan, Basauriko euskal dantza taldeak (Agintzari, Basauritar eta Edurre) Bizkotxalde parkean arituko dira (euria eginez gero, Social Antzokira joango lirateke).

Basauri, 2025eko irailaren 15a. - Aurten ere Basauriko 'Euskal Herriko Dantza Agerketa' ekimenak hiru eguneko ohiko formatuari eusten dio, iraileko hirugarren larunbataren inguruan, Euskal Herri osoko talde autoktonoen ekitaldi nagusi batekin larunbat arratsaldean.

Hortaz, EUSKAL HERRIKO DANTZA AGERKETAREN LIII. edizio hau Basaurin egingo da irailaren 19tik 21era bitartean. Ekitaldi nagusia **larunbatean** izango da, **irailaren 20an, 19:00**etatik aurrera, **Bizkotxalde parkean** talde autoktono hauen partaidetzarekin:

'PALOTEO' DE MURCHANTE (Murchante, Nafarroa). Makil-dantza hau 1902an dokumentatu zen lehen aldiz. Nafarroako beste herri batzuetan bezala, dantza, bertso satirikoak eta pertsonaia alegorikoen presentzia (maiorala, rabadana, aingerua eta deabrua) uztartzen zituen 'paloteo'ak, baina urteen poderioz ahaztuz joan zen.

Tradizio horren oroimenari eusteko funtsezkoak izan zen Inocente Aguadoren lana, Iruñeko Ortzadar taldearen ikerketa eta bilketekin batera. Makil-jokoaren egitura berreskuratzeaz gain, jatorrizko melodia batzuk ere berreskuratu ahal izan dira, besteak beste, "Yéndome yo", garai batean kantatzen zen bezala eta letra berarekin. Behin betiko suspertzea 2008an iritsi zen, udalerriko herritar talde batek makil-dantza berreskuratzeko eta birsortzeko lanari ekin zionean. Aro berri horretan, emakume gazteak izan ziren dantzatzeko ardura hartu zutenak, rol hori gizonentzat gordetzen zuen antzinako tradizio zaharra hautsiz. 2018tik aurrera, neska-mutilek hartzen dute parte, jaiaren dimentsio kolektiboa eta integratzailea sendotuz.



Gaur egun, 'paloteo'a Murchanteko jaietako ekitaldirik jendetsuena da. Abuztuaren 15ean egiten da, San Roke egunaren bezperan. Bere eszenaratzea emozio kolektibo handiko unea da, batetik memoria historikoa eta, bestetik, musika, dantza eta tradizioa uztartzen dituen. Kultur adierazpen paregabea berreskuratzeaz gain, 'Paloteo'arekin udalerriko osoaren pertenezia eta harrotasun sentimendua ere indartu da.



MENDEXAKO DANTZA TALDEA (Mendexa, Bizkaia). Mendexako dantzariak "Mahai Gaineakoa" ekarriko dute Basaurira, *San Pedro Ad Vincula* egunean, abuztuaren 1ean, erabiltzen duten mahai beraren gainean dantza eginez. Bertako mahaia ekarriko dute, nahiz eta 5,60 metroko luzera eduki eta oso astuna izan. Mendexak tradizio horri eutsi dio XX. mendearen hasieratik. Alkateak, mahaiburuan eserita, baso bat ardo ematen die euren dantza eskaintzen dioten dantzariak. Hasieran gizon helduek bakarrik hartzen zuten parte, baina 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera emakumeak eta haurrak ere sartu dira.

INDARRA (Vitoria-Gasteiz, Araba). Talde honek "Gasteizko zortzikoa" aurkeztuko du. Aspaldian zortziko bat dantzatzen zen Gasteizen Andre Maria Zuriaren egunean, abuztuaren 5ean, alkatea buru zela. Galdutako ohitura hori Indarra taldeak berreskuratu zuen eta zortzikoaren bertsio berria estreinatu zuen 1987 urtean. 2003az geroztik, nahi duten guztiak hartzen dute parte. Dantzari asko izaten dira eta ekitaldi jendetsua izaten da.



UDABERRI (Tolosa, Guipuzkoa). Tolosako dantzariak Haien "Soka Dantza" ekarriko digute, zati desberdinak barne, *Desafioa* edo *Soinu Zaharrrak*, adibidez. Era berean, Gipuzkoan ezagunena eta dantzatuena den 'Brokel Dantza' dantza-sortako beste dantza batzuk. Dantza horietan tresna ezberdinak erabiltzen dira eta trebetasun handia behar izaten da: *Boastitzea*, *Agurra*, *Brokel dantza*, *Zinta dantza*, *Uztai txiki Dantza* eta *San Juan*.

ATHARRATZEKO DANTZARIAK (Atharratze, Zuberoa). Xiberoko tradizioan errotutako talde honek hango herrietan urtero antzeztzen den Maskaradaren zati ezberdinak ekarriko dizkigu: *Barrikada*, *Ostalersa*, *Branle Kontrapas*, *Satan Dantza*, *Aitzina Pika* eta *Godalet dantza* (edallontziaren dantza).



Ikuskizunera beste herri batzuetatik etortzeko, Metroa erabiltzea gomendatzen da: 2. linea, ARIZ geltokia, Nagusia-Anbulatorioa irteera. Euria dela-eta Social Antzokira joan behar izanez gero, hobe BASAURI geltokian, 2. linearen amaiera, Basozelaiko irteera (Udaletxea).

Basaurira hurbildu ezin direnentzat, 'Euskal Herriko Dantza Agerketa' 2025 zuzenean grabatuko da eta ahalik eta azkarren partekatuko da EH Dantza Agerketa taldearen YouTubeko kanalean. Bestalde, nahi duenak sare sozialen bidez elkarreragin dezake zuzenean **#DantzaAgerketa** traolarekin eta, geroago, osorik ikusi ahal izango du aipatutako YouTube kanalean.

JARDUERA OSAGARRIAK:

Ostiralean, hilak 19, LIII. Euskal Herriko Dantza Agerketaren osagarri gisa, **19:00etan, Basauriko Solobarria plazan**, HERRI-ERROMERIA izango da, herritar guztien parte-hartzea errazteko –ezagutza-maila edozein dela ere– pentsatua. Hortik datorkio erromeriari bere leloa: *"parte har dezakezu, nahiz eta dantzan jakin ez"*. Danbolin Txistulari Elkarte (Basauri) eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarra arduratuko dira musikaz, herriko dantza-taldeen kolaboratzaile diren zenbait musikariren laguntzarekin.

Aldez aurretik, 18:30etik aurrera, TAILER batzuk jarriko dira martxan (erraldoiak, txapak, marrazkiak margotzea, zapiak jartzea eta birziklatzeko objektuak erabiliz musika tresnak egitea) eta txorizo dastaketa sagardoarekin.

Erromeria amaitutakoan, Solobarria plazatik abiatuko den BASAURI KANTARIekin bat egingo dugu.

Larunbatean, hilak 20, aurtengo ediziora gonbidatutako talde autoktonoek KALEJIRA bat egingo dute 18:00etatik aurrera Social Antzokiko atetik Bizkotxalde parkeraino, ikuskizun nagusia bertan izango baita. Ibilbidean zehar geldialdiak egingo dituzte dantza batzuk erakusteko, ondoren ikusi ahal izango denaren "gosegarri" gisa.

Igandean, hilak 21, Basauriko Euskal Dantza taldeak (Agintzari, Basauritar eta Edurre) arituko dira, eurak ere **19:00etan Basauriko Bizkotxalde parkean**. Tamalez, Basaurin ez da bertoko dantzarik gorde, ezta berreskuratu ere. Hori dela eta, hemengo dantza taldeek ezin dute larunbateko ekitaldian parte hartu, baina bai biharamunean, igande arratsaldean, beraiek egindako lana erakusteko.

Euria eginez gero, larunbateko eta igandeko emanaldiak Basauriko Social Antzokira igaroko dira. Sarrera doan izango litzateke edozein kasutan ere.

Era berean, Euskal Herriko Dantza Agerketa ospatzeko **kamisetak eta oroigarri-poltsak salduko dira** ekitaldiaren egunetan, prezio merkean.

'EUSKAL HERRIKO DANTZA AGERKETA':

Euskal Herriko Dantza Agerketaren ezaugarri nagusia honako hau da: **dantza-talde autoktonoek** soilik hartzen dute parte, hots, euren herrietako edota eskualdeetako dantzak gorde dituzten taldeek. Talde autoktonoek bertako herritarrentzat esanguratsuak diren egunetan egiten dituzte dantzak (herriko jaiak, inauteriak, etab.), herri bakoitzeko ohituraren arabera. Basaurin erakusten diren hainbat dantza jatorrizko lekuetan eta egun berezietan soilik ikus daitezke. Hala ere, jatorrizko herrietan dantza egiteari utzi baldin badiote, dantza horiek egiten dituzten taldeak ere gonbidatu izan ditugu inoiz edo behin.

Ikuskizuna aire zabalean egiten da, izan ere, jatorrian dantza horiek herrietako kale eta plazetan, elizako arkupean eta abarretan egiten baitira. Basaurin, gonbidatutako talde autoktonoen dantzak eta erritoen

tradizioak nahastu egingo ditugu, gaur egungo formatu dinamikoan, argiztapen eta jatorrizko lekuen proiektzioekin, ikusleei ohitura horien testuingurua hobeto ezagutzen laguntzeko asmoz. Horrek guztiak 'Euskal Herriko Dantza Agerketa' **ikuskizun paregabe eta erakargarri** bihurtzen du.

Euskal Herriko Dantza Agerketa 1972an sortu zen, duela **53 urte**, euskal folklorea bere horretan mantentzen duten taldeak suspertzeko eta ezagutzera emateko asmoz. Beroriek ezagutzeko aukera paregabea da, egun horietan haien herrietara joan beharrik gabe. Gaur egun, ikuskizun honetan parte hartzea pizgarria da talde askorentzat, harrotasunerako arrazoi bat, egindako lana aitortu egiten zaiela ikusten baitute.

EH Dantza Agerketak 53. edizio bete ditu dagoeneko eta dantza-talde autoktonoen erakusleho izaten segitzen du. Hori pozgarria da bai Basauriko udalerrientzat eta baita antolatzen duten bertoko dantza taldeentzat ere. Bere ibilbideari esker, 'Euskal Herriko Dantza Agerketa' euskal folklore tradizionalaren erreferentzia-puntuetako bat bihurtu da.

ANTOLAKUNTZARI BURUZKO DATUAK:

Euskal Herriko Dantza Agerketa **Basauriko hiru dantza-taldeek** (Agintzari, Basauritar eta Edurre) **antolatutako ikuskizuna** da, Basauriko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza eta babesarekin, BBKren, Social Antzokiaren, StarLan-en eta herriko hainbat kolektiboren laguntzarekin (txokoak, Herriko Taldeak, Danbolin Txistulari Elkarte, San Jose Ikastetxea, Bizkotxalde Ikastetxea, Babes Zibila), baita Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren eta Bizkaiko Gaiteroak elkartearen laguntzarekin.

Normalean, edizio bakoitza antolatzeko lanek 100 boluntario baino gehiago inplikatzeko dituzte. Horiei, aurren ere, geure esker ona adierazi nahi diegu, eta espero dugu hurrengo edizioetan ere laguntza horiek guztiak izatea.

Kolaborazio ugarien artean, **Etor Basabe** Basauriko diseinatzaile eta ilustratzailearena nabarmendu nahi dugu berriz ere. Izan ere, duela 15 urtetik hona edizio bakoitzeko kartela eta esku-programa diseinatzeko ditu. Basauriko 'Euskal Herriko Dantza Agerketa'ren LIII. edizio honetarako, parte hartzen duen talde bakoitzeko kartel bana egin du; horrela, bilduma bat egingo da, euskal dantza-talde autoktono guztien ondare historiko gisa. Bereak dira, halaber, 'Euskal Herriko Dantza Agerketa' ekimenarekin batera 'ikono' gisa agertzen diren 'dantzariak', baita prentsa-ohar honek goiburuan duen logotipoa ere, urtero antolakuntzaren agiri guztietan agertzen dena.



SARE SOZIALAK ETA YOUTUBE:

Euskal Herriko Dantza Agerketa elkarteak zenbait kontu ditu sare sozialetan: **Instagram** (www.instagram.com/eh_dantza_agerketa), **'X'** ('@DantzaAgerketa') eta **Facebook** (<https://www.facebook.com/Euskal-Herriko-DANTZA-AGERKETA-119781798124085/>), gure herriko dantza autoktonoak munduan zehar ezagutzera emateko asmoarekin.

Halaber, gogorarazi nahi dugu emanaldiak urtero grabatzen direla bideoan, bertako dantzen ikus-entzunezko artxibo gisa, eta azken urteetakoak eskuragarri daudela **YouTube**ko gure kanalean: <https://www.youtube.com/channel/UCpEly8k28SSzghyq4oqu2w>

Informazio gehiago lortzeko edo elkarrizketak eskatzeko, dantzaagerketa@gmail.com